

“Trantsizio hidriko ekofeministarako aukera galdua”

Ura oinarrizko eta funtsezko baliabidea da bizia bermatzeko; hala dio Uraren Zikloaren Digitalizazioaren ESEPEak. Alabaina, ESEPEak narratiba murriztailea eraiki du, klima-aldaketaren inpaktuak ildo nagusi hartuta. Ondorioz, ondasun komun horren dimentsioak ekonomiara murriztuta geratzen dira, planetaren muga fisikoei ez ikusiarena eginik eta energia- eta nekazaritza-ereduak edo pribatizazio-prozesuen ondorioak zalantzan jarri gabe.



ESEPEaren helburua uraren kudeaketa-sistemak eraldatzea eta modernizatzea da, hala hiriko zikloei dagokienez, nola ureztatze-zikloei eta industria-zikloei dagokienez. Hauek dira haren helburu espezifikoak: 1) ur-erabileren ezagutza hobetzea; 2) ur-kudeaketaren gobernantza eta gardentasuna areagotzea; 3) Estatuko eta nazioarteko legeriak ezarritako helburuen betetze-mailan aurrera egitea; eta 4) kualifikazio tekniko handiko enplegua sortzea. Horretarako, digitalizazioa, berrikuntza eta prestakuntza dira tresna nagusiak.

Uraren ESEPEak 3.060 milioi euro mobilizatuko ditu: 1.940 milioi inbertsio publikoaren bitartez, eta 1.120 milioi lankidetzara publiko-pribatuen bitartez. Inbertsio handi horrek ura eta saneamendua izateko giza eskubidea ezar zezakeen trantsizio hidriko feministara iristeko bide-orri gisa; baina Nazio Batuek 2010ean onartutako kategoria hori ez da ESEPEaren txostenean behin ere aipatzen. Eredu publiko-pribatuen mende egindako pribatizazioak arrisku handiak ditu eskubide horiek egikaritzeko, Espainiako estatuan eta



Ruth Perez Lázaro

Aholkularia eta ikertzailea trantsizio hidrikoaren eta ura eta saneamendua eskura izateko giza eskubidearen arloan

Euskal Herrian ikusi dugun bezala. Ur-zerbitzuetan etekinen maximizazioa, monopolio naturala eta botere-desorekak konbinatzeak bereziki arriskutsu bihurtzen du sektorearen pribatizazioa.

ESEPEaren auzirik aipagarrienetako bat da bertan behera uzten duela ura aktibo ekosozial gisa ulertzen duen ikuspegia, biodibertsitateari, ekologiari, emozioei eta identitateari lotutako funtzioak aitortzen dizkion ikuspegia, alegia. Ustez gaudituta dauden diskurtsoak berreskuratzen dituela dirudi, eskaintzan oinarritutako estrategiak betiere, baina alde nabarmen batekin. Garai batean obra hidrauliko handiez hitz egiten genuen, eta oraingoan digitalizazioa jotzen da uraren kudeaketa jasangarriaren arazo-multzo konplexuaren konponbide bakartzat. Ez zaio dagokion garrantzia ematen aurrezpenean eta efizientzian oinarritutako eskari-kudeaketari.

Zoritxarrez, ESEPEa aukera galdua da. Alde batetik, lankidetzeta publiko-publiko edo publiko-komunitarioa darabilten eredu berriak ikertzeko balio zezakeen. Bestetik, ez du parte-hartze publiko erreala erdiesteko nahiz ezagutza kolektiboa eraikitzekeko estrategiarik eskaintzen, ezta egoera zaugarrian daudenentzako enplegua sortzen nahiz genero-arrakala murrizten laguntzeko mekanismorik proposatzen. Aldi berean, ez du lurraldea kohesio-natzeko estrategiarik mahaigaineratzen; areago, uraren kudeaketari dagokionez, hiriguneen eta landaguneen arteko distantzia handitu egiten du. ●